



## **LAN HITZARMENEN MAHAIAREN LABURPENA 10. mahaia**

Joan den ostiralean, maiatzak 17, beste behin bildu zen Gizarte Ekimenezko Ikastetxeetako lan hitzarmeneko negoziatio mahaia. Dagoeneko 10. da eta aurrerapentxo batzuk izan diren arren, Patronalek ez dute lan hitzarmen berria zilegitasunez negoziatzeko beharreko urratsik eman, hots, indarrean dagoena betetzea.

Kristau Eskolak 2012ko abendura arte sortutako zorra ordaintzeko plangintzari buruzko agiri berri bat aurkeztu zuen; baina aurreko proposamen bera zen. Horrela, 2010eko zorra 2013ko ekaineko nominan kitatu eta 2011 eta 2012ko zorrari dagokiona zatitako ordainketarako egutegia finkatu, beti ere erreklamazioa bertan behera geratzeko epe legalatik haratago ordaintzeko bermearekin (Epaitegi Gorenak emandako sententziatik urte bete). Aldi berean proposatzen jarraitzen dute negoziatio mahaiaren finkatzea zorrak ordaintzeko arazoak dituzten ikastetxeek hitzarmena ez aplikatzeko ( "deskuelgea") irizpide objetiboa, horrela IBM-k(CIM) erabaki dezan ikastexe batek hitzarmena "ez aplikatu" ahal duen ala ez.

STEE-EILASek zera adierazi zuen:

- Patronalek proposatuko zorra ordaintzeko alor mailako plangintza modu positiboan baloratzen dugu.
- Gure sindikatua prest dago zorra zatika ordaintzeko izango lukeen plangintzan malgutasun-irizpideak adosteko
- STEE-EILAS-ek ez du uste adostu daitekeenik irizpide objetiborik IBM-k(CIM) ikastexe batek hitzarmena "ez aplikatu" ahal duen ala ez erabaki dezan . Ikastetxeren batek arazorik izango balu zorra ordaintzeko, beti egongo litzateke ordainketarako epeak adosteko aukerarik.

AZPren homologazioari dagokionez erabaki zen, Patronalek hala proposatuta, IBM berariazko batzorde modura gaitzea, horrela berak kontu honetaz hartutako erabakiak lotesleak izan daitezten. Akordioen bat lortzen denean , negoziatio-mahaiaren aurkeztuko dute eta bertan berretsiko da.

Datorren bilera maiatzaren 31n izango da.

Unean uneko informazioa ematen jarraituko dugu

### ***Hezkuntzan STEE-EILAS***

<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a>
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a>
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a>
<b>NAFARROA:</b> Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	<a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a>